



# TRANS BORROKA

# KLASE BORROKA DA!

Aurten ELAn, Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna dela eta, borroka horiek agenda sindikalaren lehen lerroan jarri nahi ditugu berriro ere, ekainaren 26an Gasteizen ospatuko dugun ekitaldi konfederalaren bidez.

Oraingoan **trans auzia** izango dugu jomugan, eta horretarako lehen pertsonan bizi eta borrokan dabilzanen ahotsak entzuteko ariketa kolektiboa egingo dugu. Zarata mediatikotik aldendu, eta belarriak zein burua erne jarriko ditugu gaiaren inguruko ikuspegi eta hausnarketekin hornitzeko, eta noski, ondoren gure egiteko sindikala aberasteko eta eraginkorragoa bihurtzeko.

Alde batetik, Espainiako Estatuan onartutako Trans legea aztertuko dugu. Bertan, genero autodeterminazioa jaso da, trans pertsonen eskubideen aitortzarako zein despatologizaziorako ezinbesteko elementua, alegia.

Beste alde batetik, lan munduari helduko diogu. Enplegu arloan asko dago borrokatzeko, trans pertsonen estatistika laboral gordinek hala erakusten baitute. Adibide bat jartzearren, LGTBiQ+ komunitatearen barruan trans kolektiboa da langabezia-tasa handiena duena: %80 inguru, hain zuzen ere.

**Trans borroka klase borroka da**, beraz. Eta hari horretatik tiraka, aurtengo ekitaldi konfederalean, besteak beste, honako galderak izango ditugu aztergai: nola egin estrategia sindikal eraginkorrek trans pertsonen eskubideen defentsan? Zein eduki landu beharko genituzke negoziazio kolektiboan? Nolako ekintza sindikal eta soziala garatu dezakegu trans pertsonentzat tresna baliagarria izan gaitezen?

Guzti honen inguruan eztabaidatu eta hausnartzeko, luxuzko gonbidatuak izango ditugu gure artean:

**Mar Cambrollé:** ATA-Sylvia Rivera eta Federación Plataforma Trans-eko lehendakaria eta RESPETTTRANSEko bozeramailea Europan.

**Loratuz Lotuko kideak:** Euskal Herriko trans helduentzako elkarteak.

**Ikusguneko kideak:** Gasteizko LGTBi+fobiaren aurkako behatokia.

Ekitaldia ekainaren 26an egingo da, Gasteizko EHuko letren fakultatean, goizeko 10:30etan.

**Trans pertsonen eskubideen defentsan, sindikalismoa bidelagun!**



# LA LUCHA TRANS

# ¡ES LUCHA DE CLASE!

Este año, con motivo del día del orgullo LGTBIQ+, queremos volver a poner estas luchas en el centro de nuestra agenda sindical. Lo haremos mediante el acto confederal que se celebrará este 26 de Junio en Gasteiz.

En esta ocasión nos centraremos en el tema **Trans**, y para ello realizaremos un ejercicio colectivo de escucha, a quienes luchan y viven esta realidad en primera persona. Nos alejaremos del ruido mediático para reflexionar sobre los diferentes recorridos y puntos de vista que se nos van a presentar, de cara a, por supuesto, enriquecer y hacer más eficaz nuestro papel sindical en esta lucha.

Analizamos por un lado, la ley Trans aprobada recientemente en el Estado español, donde por fin se reconoce el derecho de la autodeterminación de género, elemento imprescindible para el reconocimiento de los derechos de las personas trans y para la despatologización del colectivo.

Por otro lado, abordaremos el tema desde la prisma laboral. En el ámbito del empleo, aun queda muchísimo por conseguir, y así lo demuestran las crudas estadísticas laborales de las personas trans. Por poner un ejemplo, las personas trans son el colectivo LGTBiq+ con la tasa más alta de paro, que ronda en torno al 80%.

**La lucha trans es también, pues, lucha de clase.** Y tirando de ese hilo, en este acto confederal intentaremos abordar y abrir debate sobre las siguientes cuestiones: ¿Cómo construir estrategias sindicales eficaces en defensa de los derechos de las personas trans? ¿Qué contenidos deberíamos trabajar en la negociación colectiva? ¿Qué tipo de acción sindical y social deberíamos llevar a cabo para que el sindicato sea realmente una herramienta útil para las personas trans?

Para debatir y reflexionar sobre todo esto, contaremos con invitades de lujo:

**Mar Cambrollé:** Presidenta de la Federación Plataforma Trans y ATA-Sylvia Rivera, así como portavoz de RESPETTTRANS en Europa.

**Loratuz Lotu:** Asociación para personas trans adultas de Euskal Herria.

**Ikusgune:** Observatorio contra la LGTBiq+fobia de Gasteiz.

**El acto tendrá lugar el 26 de junio en la facultad de letras de la UPV-EHU en Gasteiz, a las 10:30 de la mañana.**

**¡Por un sindicalismo combativo a favor de los derechos de las personas trans!**